AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2769

777/2013 EBAZPENA, maiatzaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Francisco Javier Pedrosa Rodero jauna Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko zuzendariaren lanpostua betetzeko izendatu eta zerbitzu berezietako egoeran dagoela adierazten duena.

Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen martxoaren 7ko 264/2013 Ebazpen bidez argitaratu zen, 2013ko apirilaren 15eko EHAAn (71. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, eta haien baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Francisco Javier Pedrosa Rodero jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Francisco Javier Pedrosa Rodero jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitalean Antolaketako Teknikari lanpostu funtzionalaren 24766 plazaren jabea dena, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko zuzendariaren lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak izan badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Francisco Javier Pedrosa Rodero jauna Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Adieraztea ezen, Francisco Javier Pedrosa Rodero jauna zerbitzu berezietako egoeran dagoela, izendapenaren egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.